

## **NIK SINISTEN DIZUT EKIMENA EGITEKO ERABILITAKO IRIZPIDE METODOLOGIKOAK**

Ekimen honen bidez, emakume guztion arteko elkartasuna sustatzea eta bakegintzan emakumeen parte-hartzea bultzatzea bilatu genuen. Behin ekitaldi politiko hura eginda, ekimen hau gure herri eta auzoetara hedatzearekin amets egiten dugu, horren beharrezkoak ditugun aitortza herritar zabal, plural eta inklusiboak bultzatzeko. Ondoko lerroetan, ekimenari buruzko informazio gehiago aurkituko duzue, zuen herri, auzo edo eremuetan antzeko ekimenak abiatu nahi izanez gero, euskarri lagungarriak izan daitezten

*- Indarkeria sexistaren askotariko esperientziak bizi izan dituzten emakumeak identifikatu:* Horretarako erabili genituen irizpideak hauek izan ziren: a) Inoiz jadanik publikoki kontatu izana. b) Inoiz kontatu gabeak baina horretarako gogotsu daudela jakitea. c) Agerian utzi nahi dugun aniztasuna islatzea (testuinguru eta indarkeria motagatik).

*-Emakumeak kontaktatu:* Ekitaldi bateratuan hitza hartzeko proposamena egin genien. Ahal izan genuen gehienetan aurrez aurre elkartzeko saiaturik ginen, gure ekimenaren berri emanez (zergatik, nola, zertarako, nortzuk).

*-Mikrofono librea eskaini:* Hitzartzearen eskaera librea izan zen. Beraiek bizi izandakotik, 5 minututan publikoki konpartitu nahi zutena hausnartzeko eskatu genien, guk inolako irizpide gehiago eman gabe. Ez genien biolentzia horren testigantza ematerik eskatu, baizik eta hortik abiatuta nahi zutena esateko (mina, kritika, ikaspena, haserrea, indarra, salaketa).

*-Emakume hauekiko zaintza jarrera mantendu:* Proposamenari baiezkoa esatekotan, prozesuan zehar, egunean bertan zein ostean, gure esku zegoen akonpainamendua egiteko prest agertu genuen geure burua: gaiak hitz egin, ekimeneko hitzartzearen kontrastea egin, urduritasunak pasatzen elkar lagundu, eskaerak aditu, aldaketak egiteko prest egon eta abar. Guretzat ekitaldiak bezain besteko garrantzia baitzuen aurre prozesuak eta ostekoak. Eta nola ez, bereziki emakume hauek zaindu nahi genituen, prozesua indar iturri izan zedin eta ez indarrak galtzeko bide.

*-Beraien arteko elkar ezagutza bultzatu:* Emakume parte-hartzaileek beraien artean aldeztu aurretik elkar ezagutzeko aukera izan zezaten saiaturik ginen, nahiz eta atal hau izan zen ahulena geratu zitzaiguna. Gure asmoa beraien arteko ezagutza, ulermena, konplizitatea, aitortza edo saretzea erraztea zen. Sinesgarritasuna eta egiaren aitortza, emakumeen artean egiten hasiz, oinarrizko elkartasuna garatuz.

*-Komunikabideekiko ikusgarritasuna adostu:* agertu nahi zuten ala ez, edota nola agertu nahi zuten adosten saiaturik ginen.

*-Lekuaren hautaketa:* Ekimena egiteko leku sinboliko eta esanguratsua hautatzen saiatu ginen. Kasu honetan, Solokoetxe auzoan, emakumeen galera etxea bat zegoen -gerora gerra garaian espetxe funtzioak egin zituena-, emakumeentzako majisteritza eskola, baliabide ekonomiko gabeko edota ama bakarrak zirenentzako egoitza, kaxako ume edo abandonatutako umeentzako zentroa zein Larrinagako espetxe sonatua. Alegia, emakumeon aurkako askotariko indarkeriekin lotura zuen espazio fisiko eta sinbolikoa hautatzeari garrantzia eman genion